

# ARKEOLOGIA

## **ARKEOLOGIA GAUR EGUN:**

Hiru zatitan banatuta dago:

**Dimentsio akademikoa:** Ezagupen historikoa, ikerketak, teoria eta metodoaren garrantzia sartzen dira bertan. Garrantzitsua iraganeko joera historikoa ikustea autore desberdinak aztertuz, eta beraien ikuspegia ikertuz. Horregatik da hain garrantzitsua teoria. Arkeologia metodo propioarekin lotzen da.

**Dimentsio profesionala:** Ondare arkeologikoaren kudeaketaren ondorioz sortzen da, horregatik egin daiteke arkeologia profesionala gaur egun erakundeek kudeaketak egiten dituzte eta askotan ondare historikoa identitate kolektiboarekin lotuta.

Baserriak adibidez, ondare arkeologiko dira Euskal Herrian, hau gure identitatearekin lotzen baitugu. Horregatik hauen estruktura gainean zerbait eraiki baino lehen hainbat onarpen eta baimen behar dira erakundeen aldetik.

**Dimentsio soziala:** Gaur egungo interes identitarioetan egiten da lan. Memoriaren berreskurapena oso presente dago gaur egun. Eta ikuspuntu feminista ere ezartzen da bertan arkeologia feministari buruz generoaren desorekari buruzko beste ikuspegi bat ematen du.

Garrantzitsua da teoria eta metodologia orekatu bat egotea. Gure helburua iragana ezagutzea da. Teorian galderak, helburuak eta ikuspuntuak daude historiarekin batera eta metodologia arkeologikoa teknika hauen guztien multzoa da.

Metodologia; Hiru kontzeptu elkartu ditu. Kultura materiala kontzeptua oso zabala da, gehienetan zaborra berreskuratzen da, informazioz beteta dago eta kontextua oso garrantzitsua da, non pakete estatigrafikoekin egiten den lan. Hainbat pieza beraien artean erlazionatuz aurkitzen da informazioa kultura materiala berreskuratzeko kontextua aurkitu behar da eta horretarako landa lana egin behar da, estatigrafiaren kontzeptua kontextuen multzoekin lotuz. Laborategiko lana garrantzitsua da, arkeometria metodo zientifikoen bidez lortzen diren informazioak.

Landa lana datu berriak berreskuratzeko erabiltzen da. Horretarako:

- Teknika ez suntsitzaileak: Miaketa, paisaiaren arkeologia eta arkitekturaren arkeologia. Hau da, Paisaia eraldatu gabe egin daitekeen lana.
- Teknika suntsitzaileak: Indusketak. Hobeto da ez induskatzea, gehiegi egiten bada hurrengoei ez baitzaie geldituko ezer ere ikusteko.

Landa lana indusketarik egin gabe ere egin daiteke nahiz eta hauek asko erabili.

## Laborategi lana:

Hiru lan nagusi daude.

- Saikapenak: Inbentarioak; marrazkiak; berregiteak; tipologiak; planimetriaren informatizazioa, normalean sis plataformetan sartzen direnak (plataforma informatikoak), datu desberdinak erlazionatzeko aukera ematen du.
- Arkeometria: paleobotanika, paleoantropologia, oreen analisiak, arkeozoologia, mortairuen analisiak. Natur zientziak arkeologiara aplikatzea honi buruz dauden galderak erantzun ahal izateko.
  - Kronologia: geroz eta berriagoa izan kapa gorago egongo da.  
a-quem: aztarnategi edo objektuaren datazioaren aurretik gertatutakoa.(descubrimiento electricidad)  
post-quem: aztarnategiaren edo objektuaren datazioaren ondoren gertatutakoa. (enchufe)  
Bi hauek berezko objektu horrekin konparatu behar dira gauza hori honen aurretiko edo ondorengo den jakiteko.
- Datazioak: Erlatiboa, erlazioen arabera markatzen da. Absolutua. Datazio absolutu bat aztarnategia kanpoko data batekin lotzea da.

Laborategi lanak:

- errekonstrukzioa
- marrazki teknikoak
- C 14 aren bidez datzioak aztertu

**Arkeologia historikoaren definizioak:** Bereizketa garrantzitsu bat dago:

- Europako arkitektura: Iturri idatziak dituzten garaialdiaren ikerketa. Aro Erromatarretik aurrera gutxi gora behera. Iturri idatziaren presentzian oinarritzen da. Arkeologia klasikoa, Erdi Arokoa, Modernoa eta Garaikidea.
- Ameriketako (Ipar Amerika, AEB) arkeologia: Garaialdi konkretu baten arkeologia bat. Modernitatearen formazioa eta garapena, lehen globalizazio batekin hasten dena, kapitalismoaren hedapenarekin. Europarren hedapena, konkista, kolonizazioa (Behe Erdi Arotik gaur egunera gutxi gora behera).

**Arkeologiaren iturriak:**

- Iragana: Aurretiko denbora tartean pasatu den guztia.
- Historia: Iragan horretako puntu zehatz batzuk kronologikoki elkartuz denbora lerro bat osatzea.
- Iturri idatziak: Pertsona edo erakunde batek berak nahi duen denbora eta garrantzitsua dela uste duen zerbait jakinarazten da bertan. Hauek etorkizunerako eginak daude, norbaiti zuzenduak eta ez ditu ikuspuntu desberdinak azaltzen gehienetan.
- Iturri arkeologikoak: Pertsona edo erakunde batzuen egunerokotasunean oinarritzen diren objektuak edo materialak. Gardentasuna eta interpretazioa garrantzitsua da, ez dago intentzionaltasunik. Edozeinena izan daiteke ez dago elite bati lotuta idatziak egon daitezkeen bezala.

### **Iturrien balorazio kritikoa:**

Iturriaren jatorria jakin behar da, bai testua bada eta bai materiala baldin bada. Iturriaren autorearen egilea jakitea baliagarria izan daiteke, bertan ikuspuntu desberdinak identifikatu daitezkeelako. Intentzionaltasuna edo zertarako egiten den jakitea garrantzitsua izan daiteke eta zer kontestutan ere egiten den jakin behar dugu. Nori zuzenduta dagoen garrantzitsua izan daiteke helburua eta konestua jakiteko. Partziala edo manipulatu den jakitea komeni da, moldatuta edo eraldatuta egon daitekeelako. Errealitatea konplexua da eta beraz kontrastatu egin behar da.

### **Iturri motak:**

Lau multzotan banatu ditzakegu:

- Iturri materialak: Kultura materialaren kontzeptu oso zabal bat da. Barnean manufakturak, erabiltzeko produktuak, kontsumotik eratorriak aurkitzen dira. Ekoizpenak izango dira, jardueretatik eratorriak, tresnak, egiturak, hondakinak... Ekofaktoak ere daude, gizakiaren borondaterik gabe aztarnategian sarturikoak; klima eta landaretza adibidez. Kontrastearen garrantzia handia da. Fidagarritasunean bi iturri desberdintzen dituzte, arkeologikoak zuzenak direla esaten dute, zuzenean ikusten direnak, ez dutenak beste bitartekorik. Iturri idatzi guztietan adibidez bitartekari bat dago, beraz ez zuzenak direla esango genuke. Intentzionaltasuna ez da tailerretan edo etxeetan egongo baina adibidez katedral edo eraikin monumentaletan nabarmena izango da.
- Iturri idatziak → (dokumentuak+kartografia): izan ahal dira 1º mailakoak (iturri zuzenak) edo 2º mailakoak (toponimia)
- Ahozko iturriak → pertsona lokalen testigantza balio du gero dokumentatzeko, historia popularrak abia puntu bezala ere erabiltzen dira
- Ikusizko iturriak → Teknologiaren bidez sortutako irudiak (argazkiak)

Dokumetu arkeologikoaren eraiketa: Teoria, galderak eta metodologia gabe ezin dugu hau egin, datuak ere garrantzitsuak dira eta gaur eguna eta momentu hauetan dagoen interesarekin bukatzen dugu eraiketa hau.

## **IKERKETA ARKEOLOGIKOAREN HISTORIA**

### **Orientatzeko ideiak:**

- Planteamenduaren ardatza: Ideia nagusien garapena eta pentsamendu arkeologikoaren garapena (iraganari buruzko ideiak eta pertzepzioak). Nola joan den pentsamendua aldatzen. - Teoria arkeologikoa kontestu intelektualaren arabera
- Joera nagusiak
- Garapen faseak:
  - Aurrezientifikoa: Bilduma zaletasuna

- Zientifikoa (XIX. mendean): arkeologia, numismatika...

**Arkeologiaren ikuspuntu desberdinak, historia eta teoria:**

- XIX. mendea: Aportapenak aurrehistorian, museo handien sorrera, zibilizazio handien aurkikuntza. Mugimendu kolonizatzaileei esker. Gure oraingo museo askok bertan dute jatorria.
- XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera: Arkeologia historiko kulturala, ideia difusionistak planteatuko dira, etnia konkretuen presentzia ezartzen dute.
- XX. mendearen 60. hamarkada: Arkeologia berria, prozesuala edo sistematiko izenez ezagutzen dena sortzen da eta lehen hausnarketa teorikoak egiten dira.
- XX. eta XXI mendea. Arkeologia postprozesuala aurrekoaren aurka agertuko da eta gehienbat arkeologia kritikoak agertuko dira.
- XIX. mende azkenetik XX. mendearen 60ko hamarkadara arte.

Kontestua (mendearen 2. zatia): Nazionalismoen sorrera pil pilean dagoen zerbait da Europa osoan eta partikularismoetara joko dute. Nazioarteko merkatua kontrolatzeko kompetitibitatea zegoen eta horrekin lotuta kolonialismoa. Industrializazioaren eraginak ere egon ziren eta horrek adibidez desberdintze soziala eragin zuen. Hau guztia elkarrekiko desberdintasunak azaltzeko egin ziren.

**Idea difusionistak:** Aurretik guztiak ideia eboluzionistak izan ziren baina hemendik aurrera dena azaltzeko diifusionismoa erabiltzen hasiko dira. Difusionismoan konsideratzen da bi talde nagusi daudela, sortzaileak eta pasiboagoak direnak. Sortzaileak soilik izango dira ideia onenak dituztenak eta lurraldea gobernatuko dutenak, bestak isilik zeuden bitartean. Ideia hauek difusionismoaren bidez zabalduko dira eta hau migrazionismoara zabalduko da.

Arkeologia historiko kulturala sortzea ideia nazionalistekin erlazionatua dago, baita nazio berrien sendotzearekin.

Ezaugarriak:

- Taldeen arteko desberdintasunak azpimarratzen dira. Pekuliarismoa (Ratzel eta Boas) - "kultura arkeologikoaren" kontzeptua. Area edo zirkulo kulturalak. Geografikoa eta denboran zehaztutako material arkeologiko multzoa. Hauen helburua jatorrizko gunea edo kultura aurkitzea izango da.
- Kultura bakoitza etnia baten presentziarekin lotzen da.
- Kossina: "El Origen de los Alemanes" (1911), nazi ideologiaren oinarrietako bat izan zen eta europako unibertsitate askotan ikusten eta ematen zen liburu hau.
- Ideia difusionistak aldaketa kulturala eta soziala ezartzeko izan ziren.

-Guzti honen emaitzak hauek izan dira:

- Arkeologia deskribatzailea, tipologigista. Datuak garrantzitsuak izango dira eta positibistak izango dira zentzu horretan.
- Ideia difusionistak izango dira nagusi Europa osoan.
- Aurrerakuntza metodologikoak: estatigrafia, seriazioak, sailkaperak
- Aportapen handiak izan zituen: Vere Gordon Childe-k

## **LEHEN HAUSNARKETA TEORIKOAK**

### **Arkeologia berria:**

Muga bat jarri nahi dute arkeologia zaharrarekiko, honen kritika bezala sortu zen.

- Kontestua XX. mendearen 60ko hamarkadan sortzen dira. 40 eta 50. hamarkadan antropologia kulturalak garrantzia handia hartu zuen. Ideia konkretuak daude honen barruan. - Neoboluzionismoa eta funtzionalismoa: ideia eboluzionistak erabiliko dira, funtzionamendu batentzat gauza guztiek betetzen dute funtzio bat sistemaren barruan.

- Kultura, sistema (egokitzea): Aurrekoarekin lotuta. Orain arte kultura tresna jakin batzuk erabiltzen zituen talde bat zen. Eta hauek kultura sistema bezala hartuko dute. Aldaketak azpisistemen aldaketarekin etorriko dir, kulturaren faktore garrantzitsuenak ingurugiroarekin lotutakoak dira eta hau aldatzen bada oreka berri bat lortzea izango dute helburu. Arkeologia sistemikoa ere deitzen zaio honi horregatik.

- Ekologia kultural eta natur zientzietatik asko hartzen du arkeologia berriak.

- Neopositibismoa: Zientzia ulertzeko modu zurruna da, zientzia frogatu daitekena soilik izango da. Hauetan natur zientziak soilik erabiliko dituzte eta historiaren izaera zientifikoa zalantzan jarriko dute.

- Beste jakintzagai batzuk ere sortuko dira garaian. Geografia berria, Annales (Frantziako eskola, historia oso osatu nahi dute, erreala den historia bat egiten ari dira).

- Hainbat izen izango ditu: Arkeologia Berria, Arkeologia Sistemikoa eta Arkeologia prozesuala.

60ko hamarkadan hartuko du gorputza Estatu Batuetan eta Britania Handian. 1968an "New Perspectives Archeology" liburua ateratzen dute eta aitak L. Binford eta D. Clarke izan ziren. Ezaugarriak:

- Arkeologia tradizionalaren aurka. Hemen benetako azalpenak ematen ez direla argitzen da. - Orokortasunak azpimarratzen diitu. Eboluzio kulturalak aztertuko dute eta honetarako eboluzio luzea behar dela esaten zuten.
- Beraientzat kulturaren ideia sistemaren joera izango da eta hau ezegonkortzen bazen egoera berrietara egokituko zela eta hala sortzen ziren kultura berriak.
- Azalpen-zientziak bezala dago kontsideratua eta hau izango da garrantzitsuenak: Azalpenak ematea.

- Antropologiarekin duen lotura oso argia denbora guztian.
- Etnografia: gaur egun bizirik dirauten talde aurreindustrialak ikertzea izango litzateke eta etnoarkeologia hau antzinako kulturei aplikatzea. Honekin lotuta Alkantzuko Ertaineko teoria bota zuten.
- Arkeologia zientzia: Hauen obsesioa arkeologia zientzia bihurtzea izango da eta ideiak natur zientzietatik hartu dituzte. Metodo hipotetiko deduktiboa erabiliko dute: galderak planteatu behar dira hasteko eta hau datuekin planteatu behar da eta ateratzen diren ondorioak legeak izango dira. Lege unibertsalak Antropologiara hurbilduko da eta historiari gorrotoa hartuko diote hau inoiz ez delako zientzia izango. Eta azkenik objetibotasuna behar dute iragana identifikatzeko eta horretarako metodo kuantitatiboak erabiliko dituzte, hau da, arkeometria. Arkeologia berriari egindako kritikak: Determinismoa + Antihistorizismoa

### **Arkeologia postprozesuala, kontestuala edo interpretatiboa:**

Eraginak:

- Materialismo historikoa:
  - Gizarte bateko prozesu dialektikoak sortzen ditu.
  - Erlazio sozialetan jartzen du indarra eta hauek ekoizpen prozesuaren bidez sortzen dira.
  - Infraegitura eta superegitura
    - Infraegitura: produzitzeko modu desberdinak.
    - Superegitura: Infraegiturak gizartea mantentzeko sortutako elementuak.  
Adb: erlijioak
  - Elementu materialen ikerketaren garrantzia.
- Estrukturalismoa: hizkuntzatik dator.
  - Lehengaiarekin du zerikusia eta erlazio sistema moduan ulertzen da.
    - Signifikante asko daude.
  - Antropologian: kultura = zeinu-sistema
  - Arkeologian: Arte paleolitikoan. Zantzu materialetan islatzen diren egiturak ulertu behar dira.

Kultura materiala osatzen dute elementuen eduki sinbolikoari ematen diote garrantzia. Ezangura batzuetara iristea izango da helburua. Arkeologia berriaren sisteman ez da pertsonarik ikusten, natur zientzietan oinarritua dagoelako eta hauek esango dute gizakiak garrantzia handiagoa izan behar dutela eta pertsonarengana ere iritsi behar garelako kultura materialaren bidez.

Kultura materiala modu aktiboan erabiliko da gizarteetan, baita gaur egun ere. Kontestuak garrantzia handia izango du, arkeologian lan egiten dutenen kontestua ere garrantzitsua izangoda, hemen ere ikuspuntu desberdinak egongo direlako; ikuspuntu guztiak izango dira baliagarriak eta denek dute ikuspuntu desberdin bat iraganarekiko. Hauentzat arkeologia narratiba bat izango da, kulturak ikusteko modu bat, eta honekin kultura materiala testuak bezain baliagarria izango da, ikusten duen edo irakurtzen duen pertsonaren arabera

interpretazio desberdin bat izango dela. Iragana gure narratibaren bidez eraikitzen da eta diskurtso bat eraikitzen dugu horren inguruan, kontestuak eta gaurkotasunak ere agintzen dute, iraganaren ezagupena gizarte baten ekoizpena izango da gure produktu bat. Hauek ez dute zientziaren produktu zurruna onartzen, arkeologo berriek hau ezinezkoa dela diote eta teoria oso garrantzitsua dela esaten dute, datuak gure ikuspegitik ikusten direlako, beraz ez dago guztizko objektibotasunik. Arkeologiak gizartearekin konpromisu bat duela diote.

XXI. mendean Arkeologia Publikoa agertzen da. Eta gaur egungo gizartearen arteko erlazioak aztertzen ditu edozein arlotan (politiko, ekonomiko...). Lantzen dituen ardatz batzuk: Arkeologiaren eragin politikoa eta ekonomikoa, Arkeologia jardura profesional bezala, arkeologiaren irudia eta publikoki eskainitako "iragana" edo arkeologia, komunitatearen arkeologia...

Arkeologia simetrikoa (2006-2007an sortua). Mundu Anglosaxoniarrak eta nordikotik dator. Ez du aurrekoa apurtzen eta denen ideiak onartzen dituzte. Objektuaren eta dualismoaren aurka. Subjektibitatea "kontrolatuta" egon behar da, iraganera ahalik eta objektiboan begiratu behar delako. Hauek diote ezin dela iragana aurkitu eta eraiki egin behar dela.

### **Genero Arkeologia edo Arkeologia feminista:**

XX. mendeko 80. hamarkadan sortzen da, gehienbat AEBn, Ipar Herrialdeetan (Eskandinaviarretan) eta baita Espainian ere. Arkeologia honetan lehenengo pausuak eman zituztenak Margaret Conkey, Janet D. Spector, Joan Gero... izan ziren eta kongresu bat osatu zuten. *Endergerina, Archeology women and prehistory*, 1911n idatzi zuten bertan. Eta hainbat puntu finkatu zituzten arkeologiako joera matxistetan:

- Ikerketa arkeologikoaren alderdi guztietan dagoen joera matxista. Bai akademikoki eta bai ikerketetan.
- Emakumeen parte hartzea beraien gizarteetan ikusezina da.
- Genero eta ezberdintasunaren inguruko "topikoak" edo usteak, hau da, honekiko hausnarketa falta.

## **2. BLOKEA: ARKEOLOGIAREN METODO ETA TEKNIKAK: MIAKETATIK HEDAPENERA**

Erregistro arkeologikoa iraganetiik iritsi zaizkigun arrasto materialen multzoa da. Ikerketa arkeologiko batetik ateratako informazio multzoa, bertan fitxak, marrazkiak, argazkiak aurkitu ohi dira.

- Partzialtasuna. Iristen zaizkigun arrasto materialak inoiz ez dira izango gizarte batek erabilitako guztiak. Bertan aurkitutako erregistro arkeologikoa beraz, beti partziala izango da. - Hondakinak: Momentu baten bertan behera utzitako objektuak izango dira. - Etendura: ebaketa bat, zerbait gelditzen dela. Arkeologiaren zuntza bertan egoten da, honen arabera sortzen da hau. Adibidez: nekropoliak, hildako pertsonak direlako; edo erromatar villa baten jabea, jabeek bertan behera utzi dutelako.

## Aztarnategi arkeologikoa:

Edozein giza jardueren arrasto materialak gordetzen dituen lekua da:

- Artefaktuak: gizakiok egindako objektuak
- Egiturak: Artefakturarekin erlazionatutako arrastoak higiezinak dira
- Ekofaktoak: naturatik datozen elementuak, gizakiek eraldatu gabe aztarnategian sartzen direnak.

→ In site/of site analisiak:

- In site analisia: Aztarnategi barruan honi dagozkion ikerketa guztiak egitea. - Off site analisia: aztarnategitik kanpo baina honekin lotura duten ikerketak egiten dira, adibidez konparaketak eta erlazio handia dute paisaiarekin.
- Non-site kontzeptuak ez dira aztarnategi konplexuak baina paisaian jarduera konkretu batek utzitako aztarnak dira. Isolatutako aurkikuntzak berriz, beraien kontestuetatik kanpo aurkitutako aztarnak.

Aztarnategia giza jardueraren aztarna ezanguratsuak dituzten lekuak izango dira. Dena den, aztarnategia "unitate" edo kategoria nagusi bezala hartzen da normalean, baina badaude beste aukera batzuk ere (lurrean ematen den *continuum*). Lurrean artefakto erraldoi bezala.

Aztarnategi arkeologikoaren formazioa. Lehenengo bertan behera utziko da eta bertan jalkitzen dira, horren ondoren, jalkitze prozesuak izaten dira. Jalkitze ondoko prozesuetan.

→ Geoarkeologiak aztarnategiak nola formatzen diren aztertzen du:

-Faktore naturalak:

- Fisikoak: higadura, erliebeak botata...
- Biologikoak

- Faktore kulturalak (antropogenikoak): Gizakiaren eraginez.

→ Depositu motak:

- Lehen mailakoak: bertan behera utzi ziren moduan aurkitzen direnean, oraindik erabilgarri izanda.
- Bigarren mailakoak: zabor bihurtutako eta bertan zabor kontsideratu ziren gauzak, baina ez dago lekuz kanpo.

→ Aztarnategi arkeologiko motak:



- Kronologiaren arabera: Aurrehistorikoa, Erromatarra, Erdi Arokoa, Modernoa edota Garaikidea.
- Jarduera motaren arabera: Ezarkuntzak edo habitat guneak, Nekropoliak, Ekoizpenerako espazioak edota Kulturako espazioak.

Aztarnategi konplexuenetan jarduera area desberdinak aurkitu behar dira, gauza desberdinak egiten dituzten tokiak.

Paisaiaren arkeologiaren ezaugarri nagusi bat diakromia izango da, hau da, iragana gaur egunarekin lotzea, gehienbat nekazal arkeologian oinarria oso garrantzitsua da gaur egungo egoerara nola iritsi garen jakiteko. Nolabait arkeologia hibrido bat da, teknika eta iturri ezberdinetara jotzen du ondorioak ateratzeko.

Paisaiaren kontzeptu arkeologikoa. Paisaia etengabe eraikitzen joan den kontzeptu bat uzango litzateke, edozein paisaiak du bere historia. Eta horrek esan nahi du palimpsesto ideiak (etengabe bata bestearen gainean egiten dela baina aurrekoaren arrastoa beti bertan geratzen dela). Elementu kulturalki eraikia da eta gizarte bakoitzaren marka bertan izango da.

Paisaia baliabide ekonomiko bezala ulertu dezakegu, bertatik egurra, ura, landaretza... ateratzen dugulako. Beste joera batzuentzat paisaiaren esangura eta perzepzioa izango da garrantzitsuena.

Paisaiaren ikerketatik sortutako adarrak:

- Arkeologia espaziala
- Nekazaritza arkeologia
- Baso arkeologia: Basoa arkeologikoki ikertzea, bertako baliabideak kanpootik ekarritako zauhaitzak, basoaren zabalkuntza edo gutxitzea, ikusitako zuhaitzak... (gizakiaren presentzia adierazten dutenak).
- Perzepzioen arkeologia

### **Miaketa arkeologikoak:**

- Aztarnategi arkeologikoak aurkitzeko erabiliko teknika: Paisaia irakurri, aztarnategi eta egituren banaketaren analisi eta ebaluazioa.
- Teknika ez suntsitzailea. Ondorengoak erabili dezakete hala informazioa bialtzeko. Zertarako erabiltzen da:
  - Azalera zabalak ikertzeko erabiltzen den teknika eta aztarnategien arteko erlazioak eta aztarnategia eta inguruaren arteko erlazioak antzemateko (estensiboak). Aztarnategi bat sistema sozio-ekonomiko baten barne ulertu behar da.
  - Ez da aztarnategia mapan kokatzea soilik, aztarnategien arteko eta haren ingurunearekin dituzten erlazioak antzemateko.
  - Aztarnategi bat lurralde bateko sistema sozio-ekonomiko baten barruan ulertu behar da.
  - Off-site analisia.
  - Ondare arkeologikoaren gestiorako erabilgarri (prebentzio arkeologikoa). - Nola?

- Informazioa burutu eta baloratu. Dokumentazioa: dokumentuak, toponimia... garrantzitsua
- Landa lana → Azalera osoko miaketa, laginketa eta teknika desberdinak
  - Zuzenak: Bertara joanda egiten dira. Intensiboa edo laginketa izan daiteke. - Field-walking (intentsiboa): Azaleko miaketa sistematikoa egiten da eta gainera pasata lurralea miatzen da. Batzuetan bertako gauzak hartu eta aztertu edo bertan utzi eta dokumentatu egiten da bai bata eta bai bestea.
  - Miaketa estensiboa (laginketa): Normalean ezin da osorik landu eta beraz *transfer* izeneko areak markatu eta bertan egiten da field-walking-a.
  - Zeharkakoak: bertara joan gabe egiten direnak.
    - Airetikako argazkiak (zeilarra edo bertikala), ortofotoak, teledetekzioa (Google Earth)
    - Miaketa geofisikoa. Materialen erresistentzian oinarritzen da (elektrizitatea eta magnetismoa) Magnetometria (beroa).
- Fosfatoen analisisa: luraren analisi fisikoa (giza edo animalien okupazioa zehazteko)
  - LIDAR: Laser bat bidaltzen da hegazkinetik behera eta honek hiru puntu bidaltzen ditu eta honen bidez erliebea biluzik ikus dezakegu.
  - Georradarra: Kapen gogortasuna adierazi
- Georeferentzia (Sistemas de Informacion Geografica): Aukera asko daude dokumentazioa elkarren artean erlazionatzeko. Dena mapa batean agertzen baita.

### **Industria eta estratigrafia arkeologikoen garrantzia:**

Indusketa. Aztarnategia formatu den bezalako alderantzizko ordenean hasiko gara lanean eta arkeologoak lehenengo berriena den estratua aurkituko du. Beti prozesu berdina edo unibertsalak egiten dira:

- Estratigrafia arkeologikoa: Aztarnategien formazioan, prozesu unibertsalak daude. Deposizioa (positiboa) eta degradazioa (kenketa edo negatiboa).
- Indusketa sistema. Lurra ateratzeko modua:
  - Estratigrafikoa: Geruza bakoitzak dituen ezaugarri fisikoak errespetatzen egiten da. Behar bada 1,5 metrotara edo 5cm tara.
  - Arbitrarioa: Ezaugarri hauek errespetatu gabe egiten dena. Aztarnategian impositu egiten zaio neurri da.

Bidea berrietatik zaharretara izango da. Aztarnategiaren formazioaren alderantzizko ordena jarraitzen du. Estratu arteko erlazio fisikoa oso garrantzitsua da. Estratigrafia ez da estratifikazioa. Estratigrafia denaren interpretazioa da, estratifikazioa berriz, bertan geratzen den errealitatea. Estratigrafian emandako garrantzia (materialen aurrean) indusketan materialen arteko kontaktua izango da garrantzitsuena, materialen garrantzia handiagoa izango da laborategian. Faktore antropikoak dira nagusi, aldaketak askoz ere bizkorragoak dira eta aztarnaegiak errazago formatuko dira.

- Interfaziesak: ikutu ahal den aldea izango litzateke eta estratu horren bizitza adierazten du. Bi estratuen arteko muga da nabaritu behar duguna, estratuaren

erabilera markatzen den muga da.

Unitate estratigrafikoa (UE): Jarduera batek utzitako aztarna fisikoa da. Jarduera batek utzitako aztarna fisikoa da: Horma bat, estratu bat, harresi bat... Motak:

- Positiboa:
  - Horizontala: Ez dira solidoak izaten eta joera dute horizontalean garatzeko. Estratuak izaten dira beti.
  - Bertikalak: Hormak izaten dira. Hauek deposizio arro berriak formazten dituzte, gero osatuko den estratigrafia guztia aldatzen dute. Deposizio arro baten barruan dauden estratuak desberdinak izango dira kanpokoekiko.
- Negatiboa:
  - Bertikalak: fosak izaten dira. Kontuan hartu behar da zein garaietakoan izan daitekeen beste mende estratuekin nahastu daitekeelako.
  - Horizontalak: Hormekin egoten da erlazionatuta. Hormaren arrasamendua azaltzen dute.

#### Estratigrafia "legeak":

- Gainjarpenaren legea: Hemen ez bada ezer gertatu badakigu gainean dagoen estratua azpian dagoena baino modernoagoa izango dela.
- Hurrenkera estratigrafikoaren legea: Jakiteko unitate estratigrafiko bat non dagoen kontaktu fisikoa zeinekin duen jakin behar dugu. Formazio ordena hartu behar dugu kontuan. Gorago zein dagoen jakin behar dugu nahiz eta oso desordenatuta egon.
- Erlazioak adierazteko moduak:

Unitate estratigrafiko bakoitzak zenbaki bat eramango du eta erreazio angulu baten barruan kokatzen da.

Erlazio motak:

- Bata bestearen gainean egotea. Beraz, 1 estratua 2 estratuaren gainetik aurkituko da.
- Konexiorik ez dutenak, beraien artean ez dagoenean kontaktu fisiko edo estratigrafikorik. - Un todo seccionado: Hasiara baten bat izan ziren baina hainbat arazoengatik banatuta agertzen dira. Fosa baten bidez adibidez.

Sekuentzia estratigrafikoari "Harris Matrix" edo diagrama estratigrafikoa ere deitzen zaio. Eta aztarnategi bateko erlazio estratigrafikoak adierazten dituen diagrama da. Beraz, denboran zehar aztarnategi baten sortzen diren estratu eta interfazies desberdinen deposizioaren **ordena** adierazten duen tresna da. Aztarnategiaren kronologia erlatiboa adierazten du.

Indusketa estrategia. Indusketaren alde aurreko plangintza edo indusketak hartzen duen forma da, nolakoa izango den. Gure egoera, helburu eta aztarnategiaren egoeraren arabera mota ezberdinak egongo dira: zulo simple bat, kuadrantearen estrategia, Wheeler-en kuadrakula, open area(indusketa zabala izango da)...

- Wheeler sistema. Kuadrakula bidez banatzen da eta kuadro bakoitzean gertatzen den estratigrafia dokumentatzen da banaka, korte estratigrafiko desberdinak,

ondoren lekukoak desmontatu eta agertzen diren lotura guztiak dokumentatzen dira. Kontaku fisikoa apurtu egiten da, beraz estratuen banaketa konplikatu egin daiteke.

- Area zabaleko indusketa: gune zabal bat exkabatzen da inolako lekukorik gabe.

Erregistro sistema. Harris sistema erregistro sistema bat da, hau da, indusketako informazioa nola biltzen den, eta nola erregistratzen den. Garrantzitsua da gerorako batentzat geratuko dena izango da, ondoren jendeak leku berdinean indusketak egin nahi baditu, berari ematen zaiona. Garapen bat egon da; hasieran egiturazko elementuak bakarrik dokumentatzen ziren (hormak, kaleak, mosaikoak...), baina orain estratuak oso garrantzitsu bihurtu dira eta inguruko egitura guztiak, unitate estratigrafiko guztiak izango dira garrantzitsuak. Lehen indusketa egutegiak egiten ziren, hau da, egunean induskatutakoa; orain berriz, fitxetan organizatzen da, unitate estratigrafiko bakoitzak bere fitxa izango du.

Harris erregistro sistema: Unitate estratigrafiko bakoitza zenbaki batekin identifikatzen da.

Fitxak:

- Deskribapena: homogeneousatuta egongo da.
- Posizio estratigrafikoa: Zer estratu zuen gainean eta zein azpian  
Unitate estratigrafikoaren indusketa hasi baino lehen, unitatearen azaleraren (marrazkia oinplanta sinplea, esparrua eta mugak zehaztuz) + kotak.
- Diagrama.

Materialak. Informazio asko eskainzen dute. Beraien kontestu estratigrafikoa oso garrantzitsua da, normalean hauen barruan agertzen baitira eta gure sailkapean kontestu estratigrafikoaren arabera egingo da. Sekuentzia estratigrafikoa, periodizazioa egin behar da materialen kronologia kontuan hartu gabe. Material berrienak markatzen du estratuaren kronologia. Hainbat motatakoak izan daitezke aurkikuntzak:

- Jatorrizko aurkikuntzak: material garaikideak direnean eta baita unitate estratigrafiko eta deposituaren formazioa.
- Hondakin aurkikuntzak: Estratu batean ditugu, bera baino material zaharrago bat, material asko berrerabili egiten direlako. Adibidez tesela erromatarrek erdia aroko testuinguru baten agertzea.
- Infiltratutako materialak: Deposituaren formazioa baino berriagoak diren materialak agertzea, hau da, aurrekoaren kontrakoa. Goiko estratu batzuetatik eroritakoa izan daiteke.

### **Arkitekturaren arkeologia:**

Oinarriak. Eraikina dokumentu historikoa da (=aztarnategia), eraikuntza fase ezberdinetatik sortua (diakronia), eta estratigrafikoki irakur daitekeena (gehiketak eta kenketak). Diakronia hau estratigrafikoki irakurtzen jakin behar dugu.

Metodologia. Teknika ez suntsitzaileak erabiltzen dira. Unitate estratigrafiko positibo eta negatiboak egongo dira. Eta lau lege estratigrafikoak joera bezala hartuko dira, hau da, ez dira beti beteko. Eraikina elementu konplexua eta estratifikatua izango da, ezin da kontsideratu eraikin fosilizatu bat, garai desberdinetako gauzak ere izango dituelako ez batekoak bakarrik. Unitate estratigrafiko diakronikoak eta sinkronikoak, lurrazpian ez

bezala hemen gai gara ezer kendu gabe dena ikusteko.

Denaren helburua eraikinaren eraikuntza prozesua ikustea izango da, konplexua izan arren eta hinen bitartez gizarte baten berri izatea.

Metodologia, unitate estratigrafikoak. Positiboak eta negatiboak izango ditu. Baina honen emaitza unitate estratigrafiko bat izango da eta honek bere barnean hainbat elementu izango ditu: kokapen espaziala, azalera zehatza eta etapa kronologiko bati dagokio.

Unitate estratigrafikoak antzemateko irizpideak:

- Eraikuntzarako materialak: Zura, adobeak, tapiala, adreilua, harria... erabiltzen da.
  - Konstruktiboak: hormak eta abar berak eraikitzeke erabiltzen direnak: adreiluak, adobeak...
  - Dekoratiiboak: apaintzeko eraibiliko direnak.
  
- Eraikuntza-teknikak (artisautza):
  - Lanketa: harrobian egiten den lehen lana, piezak zertarako erabiliko diren jakinda blokeak handiago edo txikiago egingo dira edo landuagoak edo gutxiago eta harrobiaren eta lanean dauden pertsonen arabera desberdina izango dira blokeak.
  - Hormaren aparailua eta sekzioa: materialak elkarrekin jartzeko modua. Blokeak nola ezarri diren elkarrekin eta erregularrago edo irregularrago ezartzen diren.
  - Neurriak: Erabilitako piezen neurriak kontuan hartzekoak izango dira
  - Akabera, kanpoan ikusiko den azala leuntzea izango da eta akabera baten arabera ere kronologiak zehaztu daitezke.
  - Mortairua. Kasu batzuetan ez da erabiltzen kalitate handienetako hormetan adibidez, baina beste batzuk mortairuarekin harriak elkartuko dira.
  - Betetako funtzioa ere garrantzitsua izango da. Adibidez, lehioak bere funtzioa betetzeko gai izan beharko litzateke.

Eraikuntza-tresnek erakusten dutena. Alde fisikoa: erabilitako lehengaiak ikusten dira, baita ingurugiroaren menpekotasuna ere, merkatal sareak non dauden eta noraino iristen diren... Alde teknikoa ere erakusten digu: erabilitako tresnak, teknologia... beraz, bertako gizarte eta ekonomiaren islada izango da. Alde historikoa ere bai, gizarte baten berri ematen da, adibidez, goi erdi aroan harriaren erabilpenaren desagertzea bat eman zen. Artisautza nolakoa zen ere azaltzen digu.

Erlazio estratigrafikoak. Garaikidetasunak ikusiko ditugu elementu batzuetan, aurreko-ondokotasuna erakusten duten unitateak izango dira, beti erlazio fisikoarekin, baina bata zaharragoa aizango da eta bestea berriagoa. Zeharkako erlazioetan berriz, elkarren artean ez dira ikutuko baina garaikideak izan daitezke.

- Garaikidetasuna
  - Aurreko-ondokotasuna eta zeharkako erlazioak. Azken hauek nahiz eta garai berdinekoak izan sakabanatuta egon daitezke, hauek beste hainbat faktorekin identifikatu daitezke.

Metodologiako erregistroa. Nola bildu informazioa. Unitate estratigrafikoak pausu batzuk ditu erregistrorako. Planimetria,; krokisak, argazki digital errekifikatua (nahasketa pano eta argazki digital baten artean), fotogrametria (eskalatua da baina akats oso minimoak egoten

dira bertan, gomendagarria da)... ahalik eta sofistikuena egin behar da. Ondoren eraikinaren aurrera joan behar gara eta markatu espazioan bertan non dagoen aztertu behar duguna. Fitxen erabilera ere oso garrantzitsua izango da: unitate estratigrafiko bakoitzak zenbaki bat eta fitxa bat izango du. - Identifikazio bat izan beharko du.

- Deskribapena ere izan beharko du. Ahalik eta modu zehatzenean, materiala, hormaren egitura...
- Erlazio estratigrafikoak ere markatu beharko dira.
- Interpretapena.

Diagrama estratigrafiko bat ere egin beharko da, honek kronologia eta erlazio estratigrafikoa hartu beharko dugu kontuan. Dena dago kateatuta, beti erlazioak daude pausu horien artean. Azkenik periodizazioa egin beharko dugu, hau da, ahal den moduan kronologia definitibo bat markatu.

Metodologiako pausuak. Lehenengo pausua ebaluazioa eta lan estrategia ezartzea izango da, begien aurrera dugun problematikaren arabera lan estrategia bat ezarri beharko dugu, ditugun baliabideak kontuan hartu ondoren. Altxaera planimetrikoa eta argazkiak behar izango ditugu bai edo bai eta ondo markatu behar dugu zer espazio okupatzen duten bertan. Hurrengo pausuak unitate estratigrafikoak identifikatu eta zenbakitu beharko ditugu. Fitxak, landa lanean egiten direnak, deskribapena eta erlazioa estratigrafikoak ezarri behar ditugu honetan. Beste iturri batzuen kontsulta ere behar dugu argazki zaharrak, artxibategietako dokumentuak... behar ditugu kronologia zehazteko. Arkeometriaren arabilera ere oso garrantzitsua da hurrengo, unitate estratigrafikoak zehazteko. Diagrama estratigrafikoa eta periodizazioa.

Ikerketa aplikatua errestituzio lanei lotua. Ikerketa aplikatua momentu honetan behar den tokietan eta behar den gaiei buruzko ikerketa egitea izango litzateke, hau da, leku bateko gizartearen beharrei erantzun behar zaie. Honek laguntzen du errestituziorako irizpideak finkatzen.

Ondorioak. Arkitekturaren Arkeologiaren izaera arkeologikoa edo historikoa identifikatu behar dugu, azken finean arkitekturaren bidez gizarte bat ezagutzen dugulako, gustuak, teknikak, lanaren antolaketa, tresnen erabilera... Beraz, dokumentu material bat daukagu begien aurrean eta ondo irakurri ezker gauza asko atera ditzakegu bertatik. Ondare arkitektonikoaren ikerketa eta kudeaketarako tresna da. Ikerketa aplikatua, beraz, arkitektura gaur egungo baliabide bezala ulertzen da. Hizkuntza edo lengoia estratigrafikoa ezartzen da, lurrazpia eta eraikina aztertzeko lengoia berdina izango da. Jakintzagaiartekotasuna; arkitektura, arkeologia, errestituzioa, hirigintza... eta hauen artean erlazio on bat ezarri behar da lan on bat egin ahal izateko. Interpretapen historiko berriak sortu dira honen ondorioz, eredu idealista eta positibisten aurrean, beraz, "estiloen" kontzeptua zalantzan jartzen du, baina estilo hauek ez dira inoiz konpletatzen.

### Laborategi lana

Lehenengo dokumentazioa eta informatizazioa egingo da, fitxa desberdinak, fotogrametria... Ondoren materialen tratamendua osatuko dugu eta azkenik arkeometria (datazioak, karbono 14a, isotopoak...)

Material tratamenduan lehenengo garbitu egiten dira material guztiak. Ondoren siglatu egiten dira, pieza bakoitza identifikatzeko, siglekin nondik atera den, urtea, zein unitate estratigrafikotik atera den eta azkenik zenbaki bat jartzen zaio; honen arabera aztarnategi bakoitzetik ateratzen diren pieza guztiak identifikatuta daude. Hau eta gero inbentarioa egiten da, zerrenda bat osatzen dute eta han agertzen da unitate estratigrafiko bakoitzean zeintzuk agertu diren. Aurrera eginez marrazki teknikoak egiten dira, pieza honen funtzioak, nola egin diren eta beste hainbat gauza jakiteko. Eta azkenik depositatu egiten dira eta aldundi bakoitzaren museoetara bideratzen dira.

Guzti hau azken txosten interpretatibo batetan ezartzen da. Hau adibidez gis-a izan daiteke, datubase handi bat. Materialen inbentarioa ere emaitza bat izan daiteke. Analisisien emaitzak ere oso garrantzitsuak izango dira, baina hauetatik batzuek soilik hautatu ahal izangi dira beraien datazioa jakiteko adibidez. Eta azkenik diagrama estratigrafikoa eta azken periodizazioa izango dugu. Eta guzti honekin egingo dugu azken txostena eta honen interpretapena.

#### Arkeobotanika:

